

## **UDALERRIKO GIZARTE ETA KULTUR ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.**

### **1. artikulua.- Xedea .**

Ordenantza honen xedea gizarte eta kultura esparruko eta komunitatea garatzeko jarduerak eta programak batera finantzatzeko diru-laguntzak arautzea da. Jarduerak eta programak burutzen dituztenek irabazi asmorik gabeko gizarte eta kultura elkarteak izan eta araudi honetan xedatutako betekizunak bete behar dituzte.

Bereziki honako jarduerak jaso ahalko dituzte diru-laguntzak:

- 1.- Kultura dena delakoa alorra eta, bereziki, euskal kultura hedatzeko jarduerak biltzen dituzten egitarauak.
- 2.- Animazio soziokulturaleko eta komunitatearen garapenerako egitarauak.
- 3.- Euskara lagundu eta hedatzeko proposamenek.
- 4.- Udalerrirako interes kulturala duten azterlanak taxutu eta editatzeak.
- 5.- Aukera Berdintasunarekiko engaiamendua sustatzen duten programek.
- 6.- Artearen edozein alderdi sortu eta garatzeko egitarauak, batez ere lezamarrek egindakoak eta garatuak.

### **2. artikulua.-Diru-laguntzaren helburua**

Udal eskuduntzapeko jardueretan, berorien garapena osatuz nahiz hutsuneak betetzeko parte hartzeagatik, irabazte-xederik gabeko ekimen publiko nahiz pribatuei laguntza emateko dira ordenantza honetara bildutako diru-laguntzak. Betiere, diru-laguntza emana izan den ekitaldi berean burutu behar dira jarduerak.

### **3.artikulua.-Diru laguntza motak**

Honako araudiak diru-laguntza mota hauek ezarri ditu:

- Diru-laguntza orokor arrunta: elkarteko urteko ohiko jardueretarako laguntzak.
  - Diru-laguntza berezia: elkartearen ohiko jardunaren barruan ez dauden aldizkako ekitaldietarako laguntzak.
- Jarduera berbera bi diru-laguntzetara aurkeztea ez da bateragarria izango.

### **4. artikulua.- Onuradunak.**

4.1.-Udal araudi honek araututako diru-laguntzen onuradunak izan ahalko dira irabazi asmorik gabeko elkarte soziokultural pribatuak araudi honetan xedatutako betekizunak betetzen badituzte.

4.2.-Diru-laguntzen araudi orokorrean xedatutako betekizunak edo betebeharrak ez ezik, diru-laguntzak jasotzen dituztenek honako betekizunak ere bete beharko dituzte:

-Helbide soziala Lezaman ezarrita izatea.  
-Irabazte-xederik gabe eratuta egotea.  
-Eusko Jaurlaritzaren elkarte erregistroan eta Udal honen elkarteen erregistroan izena emanda egotea.  
-Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotea eta, hala balegokio, lehenago Lezamako Udalak emandako diru-laguntza edo diru-laguntzak justifikatuta izatea, beti ere horretarako epea igaro bada.  
Ziurtatzeko agiriak aurkezteak ez dakar, besterik gabe, aurkeztutako justifikazioaren onespena.

Ezingo dira onuradunak izan indarreko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan xedatutako baldintzaren bat betetzen duten erakundeak.

#### **5. artikulua.- *Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira***

Dagokion deialdiarentzat erabiliko den kreditua deialdia egiten den ekitaldirako onartutako udal aurrekontuan, **edo bere faltara luzatutako aurrekontuan**, dagokion sailean islatutako zenbatekokoak izango da.  
Elkarte bakoitzarentzat diruz laguntzeko gehienezko zenbatekoak ezingo du izan aurrekontu araztuaren % 60 baino gehiagokoa.  
Diru-laguntza bereziek entitate eta urte bakoitzeko gehienezko 1.200 euroko muga izango dute.

#### **6. artikulua.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Lezamako Udalak eman litzakeen diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin. Edozelan ere, diru-laguntza jasoko duen programa edo jarduera burutzeko eskuratutako guztizko finantzaketa ezin izango da haren kostua baino handiagoa.  
Diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek, hala balegokie, udalari jakinarazi beharko diote, eskabidea egin ondoren xede berbererako bestelako diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero.

#### **7. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa.**

Eskabideak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, eskabide-orri ofiziala betez. Baldintzak honako hauek izango dira:

a).- Kultur entitate pribatuen eskabidea elkartearen legezko ordezkapena duen pertsonak edota horretarako ahalmen nahikoa duenak sinatuko du. Batean zein

bestean kreditatu egin beharko da. Horretarako nahiko da aktaren fotokopia, ekitaldi bakoitzean zuzendaritza batzordearen eraketa erakusten duena.

b).- Eskabidearekin batera egin asmo diren jardueren xehetasunezko egitasmoa ekarriko da, honako hauek adieraziz, gutxienez:

1.-Jardueren deskribapena.

2.-Ustezko partaide kopurua eta jarduerak burutu nahiz garatuko diren egunak eta orduak.

3.-Bete nahi diren helburuak.

4.-Norentzat den (sexua, adinak, etab.).

5.-Sarrera eta gastuen aurrekontu xehekatua, gutxienez honakoak zehaztatuz:

Sarrerak:

-Bazkide kuoten sarrerak.

-Instituzio publikoetako jasotako diru-laguntzengatiko sarrerak.

-Instituzioek nahiz pertsona pribatuek emandako ekarpen edo/eta diru-laguntzengatiko sarrerak.

-Kuotak, matrikulak, salmentak, alogerak eta abarrek sortutako sarrerak.

-Prestazioen etekinegatiko sarrerak.

- Bestelako diru-sarrerak.

Gastuak:

- Gastu korronteak

-Azpiegitura gastuak.

-Bestelako gastuak.

6.-Entitateak programan erabiltzeko jartzen dituen bere baliabideak edo azpiegiturak.

7.-Euskararen tratamendua.

8.-Aukera-berdintasunaren tratamendua

9.-Diruz lagundu nahi den kopurua.

10.-Balora daitezkeen bestelako alderdiak.

11.-Elkarte eskatzaileak kontua zabalik duen banku entitatearen ziurtagiria; diru-laguntzaren zenbatekoa sartuko den kontuaren zenbakia ere adieraziko da.

12.- Zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela frogatzen duten ziurtagiriak (diru-laguntzaren ordainketa egiteko momentuan eskaerarekin aurkeztutako ziurtagirien 6 hilabeteko baliozko epea iraungi bada ziurtagiri berriak eskatuko dira).

Elkarteen erregistroan dauden dokumentuak ez dira nahitaez aurkeztu beharko, esaterako estatutuak, izendapenak, etab., aldaketarik izan ez badute.

## **8. artikulua.– Deialdia eta eskabideak aurkezteko epea.**

Lezamako Udalak dagokion deialdi publikoa egingo du urtero, **urtarrileko hilean**, xedatutako epean, interesa duten guztiek eskabidea aurkeztu ahal izan dezaten, eskatutako agiriekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, dagokion deialdia Bizkaiko

Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Diru-laguntza bereziak urtean zehar aurkeztu ahalko dira, jarduera ospatu baino 60 egun natural lehenago.

### **9. artikulua.-Eskabide osatu gabeak edo/eta akastunak.**

Akatsak aurkituko balira edo eskabideek aipatu betekizun guztiak beteko ez balituzte, eskaera egingo zaie interesdunei 10 egun balioduneko epean agiriak zuzendu ditzaten; halaber, ohartaraziko zaie emandako epean eskatutako zuzenketak egin ezean, eskabideari amore eman zaiola ulertuko dela, eta izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela hura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan xedatutako ondorioekin.

### **10. artikulua. Organo izapidegilea**

Txostenaren izapidegilea Lezamako Udaleko Kultura, Kirol, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen batzordeburua izango da. Onesteko proposamena egiten duen ebaluazioaren emaitza adierazteko txostena egingo duen kide anitzeko organoa Lezamako Udaleko Kultura, Kirol, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordea izango da. Deialdia ebazteko erabakia Alkatetzak hartuko du, organo izapidegileak proposatuta.

### **11.artikulua.-Emateko prozedura.**

Diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emango dira, aintzat hartuta aurrekontuetan horretarako bideratutako partida ekonomikoa, elkarre bakoitzaren kasuan gehienez lagun daitekeen zenbatekoa eta lortutako puntuazioa, hurrengo idatz-zatian zehaztutako balorazio irizpideen arabera.

### **12.artikulua.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Lezamako Udalak diru-laguntzak emango dizkie udalerrirako interesgarritzat jotako egitasmoei, betiere diruz lagunduko den jardueraren xedeari lotuta ez dauden gastuen justifikazioa eta, hala badagokio, arazketa aurretiaz espedientean jaso badute; horretarako, honako irizpide hauek kontuan izango dira:

#### **a).- Euskararen lekua, bitarteko eta helburu gisa (0-15 puntu bitartean).**

-Memoria euskaraz idaztea: 0 eta 5 puntu bitartean.

-Jakinarazpenak, publizitatea...euskaraz: 0 eta 5 puntu bitartean.

-Antolatutako jardueretan euskara erabili eta zabaltzea: 0 eta 5 puntu bitartean.

#### **b).- Aukeren Berdintasunarekin konpromisoa aurkeztutako programa garatzean (0-15 puntu bitartean).**

- emakumeen presentzia zuzendaritza-organoetan: 0 eta 5 puntu bitartean.
- programatutako jarduerak bat etortzea genero-berdintasunarekin: garatutako jardueretan emakumeek parte hartzea baloratuko da. 0 eta 5 puntu bitartean.
- elkartearen jarduerak udalaren berdintasun-planarekiko osagarriak izatea (0 eta 5 puntu bitartean).

**c).-Udalaren interesak eta aurkeztutako proiektuaren proposamenak bat etortzea (0-15 puntu bitartean).**

- elkartearen jarduerak udalaren kultura-programazioarekiko osagarriak izatea (0 eta 10 puntu bitartean).
- beste erakunde batzuekiko lankidetzak, baterako proposamenak antolatzeko (0 eta 5 puntu bitartean).

**d).-Urteko egitarau iraunkorra eta etengabea; zehaztutako egitasmoak eta helburuak (0-10 puntu bitartean).**

**e).- Aurkeztutako egitarauak edo jarduerak gizartean duen eragina (0-15 puntu bitartean).**

- Programatutako jarduerak zenbat pertsonari zuzenduta dauden (0 eta 5 puntu bitartean).
- Modu positiboan baloratuko da programatutako jarduerak haur eta gazteei (3-18 urte) eta hirugarren adinari (65 urtetik gora) zuzentzea. (0 eta 5 puntu bitartean).
- Bazkide-kopurua (0 eta 5 puntu bitartean).

**f).- Egitarauan eginiko antolakuntza, egitura eta diru ahalegina (0-10 puntu bitartean).**

- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa (0 eta 5 puntu bitartean).
- Elkarteak eginiko ahalegina baliabide propioak lortzeko (0 eta 5 puntu bitartean).

**g).- Talde sustatzailearen ibilbidea, aurrekariak eta esperientzia (0-10 puntu bitartean).**

- Elkartearen jardueren bilakaera azken bi urteetan (0-7 puntu bitartean).
- Historiala, esperientzia:

- 0-5 urteko antzintasuna: 0,5 puntu.
- 5-10 urteko antzintasuna: 1,5 puntu.
- 10etik aurrera: 3 puntu.

**h).- Erakundeak egiten duen ahalegina belaunaldi-txandarako eta kide gazteak proiektuan sartzeko. (0 eta 5 puntu bitartean).**

**i).-Modu positiboan baloratuko da desgaitasuna duten biztanleen segmentuekiko sentsibilizazio-jarduerak sartzeko (0 eta 5 puntu bitartean).**

### 13. artikulua.-Eskabideen ebazpena.

1. Eskabide arruntak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie interesdunei, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatuta.

Eskabide bereziak gehienez hogeita hamar egun naturaleko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie pertsona interesatuei, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Interesdunek eskabideak ezetsi direla ulertu ahalko dute, administrazio-isiltasunagatik, epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez balitz.

2. Ebazpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58 artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Ebazpena ezezkoa bada, argudioak eman beharko dira. Ebazpena baiezkoa bada, Udalak idatziz azaldu behar du, zein irizpidetan oinarritu diren kopurua onartzeko.

3. Ebazpena, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 18.artikuluan ezarritako eraz gain, Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da, eta diru-laguntzak web orrian ere.

### 14. artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzaren zenbateko osoa ordainketa aurreratu bakar batean abonatu da, diruz-laguntzen diren jarduerak izan ditzaketen gastuak finantzatu ahal izateko

### 15. artikulua.-Diru-laguntzen aplikazioa eta justifikazioa.

1. Diru-laguntza gisa emandako zenbatekoa eskabidean adierazitako xederako izango da, bete-betean.

2. Udal Araubide honetan araupetutako diru-laguntzen onuradunak ondoren adierazten diren agiriok aurkeztu beharko dituzte Lezamako Udalaren bulegoetan eta inolako errekerimendurik egin gabe, diru-laguntza eman zaien urtearen hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen, edo denboraldiko jarduera amaitu eta hurrengo 30 egunen barruan.

a) Jardueren garapenari buruzko azalpenen txostena.

b) Gastu eta sarreren azken balantzea eta gastuen justifikazioa **aurrekontu araztuaren % 60ra artekoa**. Diruz lagundutako egitarau nahiz jardueraren gastuei dagozkien originalen bitartez justifikatuko da, baita jarduerak egiteko lortutako diru-sarrerei dagozkienak ere. Beste erakunde batzuek emandako diru laguntzak onartu

zireneko akordioak ere erantsi beharko zaizkio, udalari diru-laguntza eskaera egin zitzaionean ekartzerik izan ez bazen.

Onuradunak aurkeztutako jatorrizko dokumentuak behar dituenean, horiek fotokopia batekin entregatuko dira. Fotokopia hori parekatuko da eta jatorrizkoak zigilatu ondoren itzuliko dira.

Frogagiriekin bat etorri behar dute nahitaez, alde aurretik egindako eskariarekin eskuratutako diru-laguntzaren xedeko helburu eta jarduerekin; helburu desberdinak betetzeko egindako gastuak ez dira inolaz ere onartuko.

Gastuen eta sarreren justifikazioa aztertu ondoren, sarrerak gastuak baino gehiago badira, Lezamako Udalak gaindikinari dagokion kopurua kenduko dio, berak emandako diru-laguntzari. Kasu horretan, diru-laguntza jaso duen erakundeak dagokion zenbateko hori itzuli egin beharko du udal kutxetara.

Atal honetakoak aurreikusteko, gastu nahiz sarrera errealtzat joko dira, hala burututako ordainketa nahiz sarrerak nola eskatu daitezkeen obligazio nahiz eskubide diren ordaintzeko nahiz sartzeko dauden kopuruak, artean burutu ez badira ere.

c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko prestatutako esku egitarau, kartel, argazki, argitalpen eta bestelako dokumentazio grafikoan, jarduera Lezamako Udalak diruz lagundua izan dela agertuko da, euskaraz edo euskaraz eta erdaraz, Udalak emandako logotipo formalizatuetan.

d) Diru-laguntza eskabideari erantsitako egitarauan agertzen diren helburuak zein mailatan bete diren.

3. Lezamako Udalak egingo du diruz lagundutako jardueren jarraipena, eta edozein unetan eska ditzake azalpenak nahiz bidezko deritzon agiriak. Udal araubide honetan araupetutako diru-laguntzaren bat eskuratu duen subjektuaren kontabilitateari buruzko ikuskaritza ere eska dezake.

## **16. artikulua.-Publizitatea eta hizkuntz euskarria.**

1. Diru-laguntza eskuratzeko eskatzailea behartu egiten du, egitarauen publizitatean dena delakoa -, udal laguntza eman zaiola jasota geraraztera, Lezamako Udalak emango dion logotipo formalizatuaren, euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz.

2. Udal diru-laguntza jaso duen orok, erakundea nahiz pertsona izan, egitarauen propaganda iragarlea euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin behar du, horri buruz onartutako hizkuntza irizpideen arabera.

## **17. artikulua.- Diru-laguntza itzultzea.**

1. Honako kasuetan, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira:

a).- Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete barik lortzea.

b).- Emandako diru-laguntza eskatu zen xede jakinerako ez erabiltzea edo aurkeztutako proiektuan aurreikusitako jarduerak ez burutzea.

c).- Diru-laguntza justifikatzeko beharra ez betetzea. Gastuaren zati bat justifikatuko balitz, justifikatu barik geratutako zenbatekoa itzuli beharko da. Finantzatutakoa jardueraren benetako kostua baino gehiago balitz, erabili gabeko zenbatekoa itzuli beharko da.

d) Diru-laguntza emateko ebazpenean onuradunei ezarritako baldintzak edo betebeharrak ez betetzea.

Itzulketa eskatzeko ebazpena diru-laguntza eman duen organoak emango du.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK.**

### **Lehenengoa.**

Udalaren diru-laguntza jaso nahi duen elkarte orok Eusko Jaurlaritzako eta Lezamako Udaleko Elkarten Erregistroan izena emanda egon behar du, honako dokumentazio honekin:

- Estatutuak.
- Eraketa akta.
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa.
- Eusko Jaurlaritzan elkarrekin duen erregistro zenbakia.
- Bazkide kopurua.
- Banku kontuaren zenbakiaren egiaztagiria.
- IFK
- Behar bezala betetako formulario ofiziala.

### **Bigarrena.**

Ordenantza honetan xedatutakoari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hura garatzeko arautegian xedatutakoa aplikatuko da.

## **AZKEN XEDAPENA.**



Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu ondoren sartuko da indarrean eta aplikatuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 65.2 artikuluan xedatutako epea igarotakoan, eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte iraungo du indarrean.